



Usurbilgo Udala

2026/02/26

## 2026KO OTSAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Xabat Beloki Segurola  
Iratxe Begiristain Otegi  
Xabier Aranburu Leiva  
Jose Maria Lizaso Azconobieta  
Oskar Santamaria Picabea  
Maialen Iñarra Arregi  
Xabier Otxoa Muñoz  
Ivan Iriondo Axpe  
Josune Urkola Larrarte  
Petra Romero Pozo

**Idazkaria:** Leire Ucin Soraluze.

**Kontu-hartzailea:** Gorka Lizarraga Erro.

Usurbilen, 2026ko otsailaren 26an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

### 1.- 2026KO URTARRILAREN 29KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2026ko urtarrilaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### 2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2026KO URTARRILAREN 19TIK OTSAILAREN 13RA (2026/88-2026/289).



Usurbilgo Udala

2026/02/26

Alkatetzak 2026ko urtarrilaren 19tik otsailaren 13ra bitartean (2026/88-2026/289) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- 2026 EKITALDIRAKO USURBILGO UDALAREN DIRUZAINZTA PLANA ONARTZEA (2026UPLA0003).**

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

#### ***“Aurrekariak***

Indarrean dagoen araudiak ezartzen duenaren arabera, toki-erakundeek urteko Diruzaintza Plana prestatu behar dute, diru-fluxuen plangintza egokia bermatzeko eta hornitzaileei ordaintzeko gehieneko epeak betetzen direla ziurtatzeko.

Horren harira, Udaleko Diruzaintzak, bere eginkizunen barruan eta ofizioz, 2026 ekitaldirako Diruzaintza Plana prestatu du.

#### ***Oinarri juridikoa***

Diruzaintza Plana egiteko betebeharra, bereziki, honako arau honetan oinarritzen da:

- Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, bereziki 13.6 artikuluan, zeinak ezartzen baitu toki-erakundeek Diruzaintzako Plana izan behar dutela, eta gutxienez hornitzaileei ordaintzeko aurreikuspena jaso behar duela, morositateari buruzko araudia betetzen dela bermatzeko.

Halaber, lege bereko 18. artikulua aurreikusten du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea (PMP) gaintzen bada, dagokion Diruzaintza Plana eguneratu eta neurriak txertatu beharko direla.

Era berean, Toki Ogasunak arautzen dituen legeria aplikagarria eta diruzaintzaren kudeaketa arautzen duten gainerako xedapenak hartu dira kontuan.

#### ***Edukia eta helburua***

Diruzaintza Planaren helburua da:

- Udalaren diru-sarrerak eta ordainketak denboran antolatzea.
- Diru-likidezia egokia bermatzea.
- Hornitzaileei legez ezarritako epeetan ordaintzea.



Usurbilgo Udala

2026/02/26

- Ekitaldiko diru-fluxuen jarraipena egitea eta beharrezko eguneraketak ahalbidetzea.

Planak honako hauek jasotzen ditu:

- Hasierako diru-likidezia.
- Aurreikusitako diru-sarrerak.
- Aurreikusitako ordainketak.
- Ekitaldi osoan zeharreko diruzaintzaren bilakaera.

### **Ondorioa**

Aurkeztutako aurreikuspenen arabera, Udalak nahikoa baliabide ekonomiko ditu aurreikusitako betebeharrak garaiz betetzeko eta indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzeko.

Diruzaintza Plana tresna tekniko eta plangintzarako dokumentua da, eta ekitaldian zehar beharrezko eguneraketak egin ahal izango dira, aurrekontuaren exekuzioaren bilakaeraren arabera.

2026ko otsailaren 18an egindako Antolaketa batzordean 2026ko ekitaldirako Usurbilgo Udalaren Diruzaintza Plana aho batez onartu da, horrela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Iratxe Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Mari Lizaso, Josune Urkola eta Petri Romero.

Antolaketa batzordearen irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA.** 2026 ekitaldirako Usurbilgo Udalaren Diruzaintza Plana onartzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

**4.- USURBILGO UDALAREN VII. PLANGINTZALDIRAKO EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA ONARTZEA (2023-2027) (2026UPLA0002).**



Usurbilgo Udala

2026/02/26

Batzarkideek Herritarrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Erakunde publikoetan, gure kasuan Usurbilgo Udalean, hizkuntza-politika egiteko bost urteko planen bitartez gauzatzen da, 2023. urtean VII. plangintzaldian sartu ginen eta Usurbilgo Udalarari bere plan estrategikoa diseinatzea, onartzea eta abian jartzea dagokio.

Plana idazteko 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua nahiz ondoren hori ordeztu duen 2024ko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua hartu dira kontuan, besteak beste.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatutako KEMEN markora egokitu da 2023-2027ko Usurbilgo Erabilera Plana, eta horretarako markoak finkatzen dituen ezinbesteko 14 adierazleak bermatu dira.

VII. Plangintzaldiko planaren bisioa Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea izango da, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko.

Kudeaketarako erronkak honakoak dira:

- Egitura egokia antolatzea udalaren kudeaketa orokorrean txertatuta.
- Jarraipen sistematikoa egitea.
- Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.
- Arduradun politikoen zein langileen lidergotza sustatzea.

Erabilerarako erronkak, aldiz, hauek:

- Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.
- Euskara izatea sortze-, lan- eta zerbitzu-hizkuntza.

Planak hiru eranskin jasotzen ditu: Hizkuntza irizpideak, Kemen markoaren adierazleak eta lanpostuen zerrenda.

Euskara teknikariak 2026ko otsailaren 12an txostena egin du eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak plan estrategikoari buruzko oniritzia igorri du.

Herritarrak batzorde informatzaileak, 2026ko otsailaren 18ko bilkuran aho batez onartuta (Aldeko bozkak: Agurtzane Solaberrieta, Jon Mikel Azpiazu eta Petra Romero) egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Usurbilgo Udalaren VII. Plangintzaldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2023-2027) onartzea.



Usurbilgo Udala

2026/02/26

**Bigarrena:** akordioaren berri emango zaie Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, UEMari, udaleko sail guztiei eta udal sindikatuei.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

#### **5.- USURBILGO UDALAK 0-2 USURBILGO HAUR ESKOLAKO ZERBITZUA HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN INTEGRATZEKO ESKAERA ONARTZEA (2026IDOR0004).**

Batzarkideek Herritarrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

#### **“Aurrekariak**

2024-25 ikasturtetik eta 3 ikasturtetarako Usurbilgo Udalak kontratu bat du indarrean Udarregi ikastolarekin, 0-3 adin tarteko Usurbilgo haur eskola kudeatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak dirulaguntza bat bideratu du ikasturtero udal titularitateko haur eskolen finantzaketan laguntzeko eta honek bihurtu du zerbitzua bideragarri. 2024ko urtearen amaieran Eusko Jaurlaritzak iragarri zuen, Haur eskolaren eskumena Eusko Jaurlaritzarena zela, eta doakotasunerako bidean, Udal titularidadeko ikastetxeak, Haurreskolak Partzuergoan integratzeko aukera izango zutela eta 2024-25eko ikasturtea izango zela diruz lagunduko zen azkena. Hala ere, Udalek horrela eskatuta, urtebetez luzatu zen Partzuergoan integratzeko epea eta 2025-26rako azken diru-laguntza ematea onartu zen.

Usurbilgo Udalak, Hezkuntza Sailarekin eta Udarregirekin hainbat bilera egin ditu Usurbilgo haur eskolaren etorkizuneko kudeaketaren inguruan eta erabaki da 0-2 Partzuergoan integratzea eta 2-3 Udarregi ikastetxeak kudeatzea.

Eusko Jaurlaritzak eta Partzuergoko ordezkariak Udal titularitateko haur eskolak bilera batetara deitu zituzten 2025eko azaroan, bertan Udal haur eskolak partzuergoan integratzeko ibilbidea azalduz.

Ibilbide honetako lehendabiziko pausoa Haurreskola Partzuergoa eta Usurbilgo Udalaren arteko Jarduteko Protokoloa onartzea izan da, 2026/224 Alkatetzako Dekretuaren bitartez onartu dena.



Usurbilgo Udala

2026/02/26

## **USURBILGO UDALA HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN INTEGRATZEKO ESKAERA ONARTZEA**

Udalerrri berri bat partzuergoan sartzeko erakunde interesatuak eskaera egin behar du. Udalerrria Partzuergoan sartzeko erabakia korporazioaren osoko bilkuran hartuko du legez ezarritako gehiengoak. Erabaki horren bidez, Partzuergoaren Estatutoak eta Partzuergoak udalerrria sartu ahal izateko baldintzak finkatuko dira.

Ondoren Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak onartuko du eskaera.

Usurbilgo Udala Partzuergoko teknikariek lanean dirau, Usurbilgo haur eskolari dagozkion baldintzak zehazteko, eraikinari eta zerbitzua emateko beharrezkoak izango diren langileei dagozkienak batipat. Guzti hau uztailen sinatuko den hitzarmenean jasotzea aurreikusten da.

Ikusirik Udal idazkariak eta Garapen eta Hezkuntza teknikariak emandako txostena eta Herritarrak batzorde informatzaileak, 2026ko otsailaren 18ko bilkuran aho batez onartuta (Aldeko bozkak: Agurtzane Solaberrieta, Jon Mikel Azpiazu eta Petra Romero) egindako irizpena, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Usurbilgo Udalak 0-2 Usurbilgo haur eskolako zerbitzua Partzuergoan integratzeko eskaera onartzea.

*Hala ere, Uztailen Udalbatzan Usurbilgo udalak Partzuergoan sartzeko erabakia hartu beharko du dagozkion baldintza partikularrak onartuta eta baita ere Partzuergoaren Estatutoak.*

*Ondoren, Udalak akordioa Haurreskolak Partzuergo Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko dio eta Partzuergoko zuzendaritza batzordeak onartuko du.*

**BIGARRENA:** Erabaki hau Haur eskolak Partzuergoari jakinaraztea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

2026/02/26

## **6.- MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA (2026IMOZ0002).**

Herritarrek batzorde informatzaileak 2026ko otsailaren 18an egindako bilkuran Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Egunari buruzko adierazpena Udalbatzari helaraztea erabaki zuen aho batez (alde: Agurtzane Solaberrieta, Jon Mikel Azpiazu eta Petra Romero).

Udalbatzarrak, aho batez, honako adierazpena onartu du:

### **“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

#### **MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorrek dugun konpromisoa irmoki berresten dugu. Printzipio demokratiko hori ukazina da, eta gizarte justu, aske eta kohesionatu baten funtsezko zutabea.

Gaur, ahotsa irmo altxatzen dugu berdintasuna defendatzeko eta aldarrikatzeko, bere diskurtsoa zokoratzen eta zalantzan jartzen ari baita komunikabideetan, sare sozialetan eta, modu kezagarrian, giza harremanetarako eguneroko espazioetan.

Historian zehar berdintasunaren aurrerapenen aurrean gertatu den bezala, mugimendu antifeminista baten goraldian gaude gaur egun, diskurtso erreazionario eta misoginoetan adierazten dena. Narratiba horiek oinarritzko konkistak zalantzan jartzea, nahasmendua sortzea eta indarkeria matxistaren existentzia deslegitimatzea bilatzen dute. Diskurtso antifeministak erasoaldi politiko eta kolektiboki antolatua osatzen dute, eta eztabaida publikoan ezin dira beste iritzi bat bezala onartu.

Berdintasunaren defentsa ez da aukera bat, ezta ideologia bat ere: giza eskubide unibertsala da, aitortua eta babestua. Hamarkadetan kolektiboki borrokatuz eta lan eginez lortu duten eskubidea da emakumeek, mugimendu feministak, erakundeek eta pertsona aliatuek, batez ere, diskriminazioa desagerrarazteko, askatasunak zabaltzeko eta guztientzako aukerak bermatzeko.

Berdintasunean hezten duen, estereotipoak bazterten dituen eta errespetuan, askatasunean eta duintasunean oinarritutako harremanak sustatzen dituen gizartea aldarrikatzen dugu; baita indarkeria matxistaren biktimak eta bizirik atera direnak aintzat hartzen, laguntzen eta entzuten dituen ere. Izan ere, ozen eta garbi esaten dugu berdintasunik gabe ez dagoela erabateko demokraziarik, eta indarkeria matxista desagerrarazi gabe, ez dagoela guztiontzako askatasunik.

Martxoaren 8an, euskal udalek dei egiten diegu herritar guztiei eta erakunde guztiei batuta eta elkartuta irmo egon gaitezen lortutako eskubideak defendatzeko eta , atzera pausurik gabe, berdintasun erreal eta eraginkorrerantz aurrera egiten jarraitzeko.

Horregatik, Usurbilgo Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:



Usurbilgo Udala

2026/02/26

- Gure udalerrri eta eskualdeetan taldeak sor daitezen sustatzea, diskurtso misogino eta antifeministei aurre egiteko eta informazio faltsuen hedapena desaktibatzen laguntzeko.
- Tokiko eremutik lehentasunezko kolektiboekin esku hartzea, haien jarrera antifeministak eta maskulinitate toxikoak desmuntatzeko.
- Erresistentzia-aliantzak sustatzea talde feminista eta tokiko beste eragileekin, jarrera antifeministak identifikatzeko eta eteteko bizikidetzaz-espazioetan eta komunitate birtualetan.
- Baliabideak eta egiturak zaintzea eta babestea, gure udalerrrian berdintasun-politikek aurrera egiten jarrai dezaten.

Dei egiten diegu herritarrei bat egin dezaten Martxoak 8-Emakumeen Nazioarteko Egunean tokian-tokian antolatzen diren deialdi eta aldarrikapenekin.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dago.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:35ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**